

OPEN ESKOLA

MAPAKETAREN AURREKO TXOSTENA

AURKIBIDEA

1. Testuingurua
2. Lan hau egin duten taldeak eta pertsonak
3. Konpromiso taldearen lehenengo bileraren ondorengo bilaketa irizpideak
4. OE ereduari buruzko lehenengo oharra
5. Epe motzean egin beharreko lana
6. Fitxak/esperientziak

1. Testuingurua

OGP (*Open Government Partnership* / Gobernu Irekiaren Aliantza) alde anitzeko ekimena da munduan, gobernuen konpromiso zehatzak bermatu nahian dabilena alde horretatik, zehazki, gardentasuna sustatzeko, herritarrak gaitzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta gobernagarritasuna sendotzeko balio duten teknologia berriak aprobetxatzeko. OGP itunaren kide izateko, herrialde partaideek Gobernu Irekiaren Adierazpena babestu behar dute eta herrialde baten ekintza plan bat aurkeztuko dute, herritarrei galdeketa eginez garatua.

OGP Euskadi planean eraginpeko erakunde guztiek hartutako 5 konpromisoak garatuko eta ezarriko dira (Agintaldi planen bitartez kontuen berri ematea; Open data Euskadi eta linked open data; Euskadiko herritarren parte-hartze Ilab-a; Open Eskola – Herritarren eskola irekia; eta Integritatearen euskal sistema). Konpromiso horiek guztiak bi urtetan egikarituko dira.

Open Eskola izeneko konpromisoa (Herritarrentzako eskola irekia gobernamendu publikorako) Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak gidatuko dute.

OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planarekin, Open Eskola herritarren eskola irekia deitzen denarekin, herritarrentzako irekia den eskola eredu kontrastatua garatu nahi da topaketa eta ikaskuntza espazio gisa, gai publikoetan aktiboagoak diren herritarrak egotea sustatzeko eta administrazioa irekiagoa eta gardenagoa izatea bultzatzeko, kultura parte-hartzaileko balio partekatuekin eta zalantzarik gabe balio publikoa sortzeko den erantzukidetasuna etengabe hobetuz.

Herritarrentzako eskola ireki eredu definituko da, erreferentzia izango dena lurralde maila ezberdinetan ezartzeko. Zehazki hauek dira Open Eskola ereduaren oinarriak:

- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak: Trebetasunak ikasteko espazio bat, balio publikoa batera sortzeko lankidetzan aritzeko, herritarrak eta kudeaketa publikoko teknikariak eta politikariak bilduko dituena.
- Lankidetzak, negoziazio eta akordioetarako trebetasunak ikasteko metodoekin esperimentatzea.
- Gai publikoetan parte hartzeko ikaskuntza eta motibazioa aplikazio praktikoa eta esperientzia berritzaileen ezagutza oinarri hartuz.
- Erabakiak hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta jarrerak.

- Herritarren aktibazio kritikoa balio publikoa sortzean lankidetzan aritzeko.
- Berrikuntza publikoarekin konpromisoak hartzea gobernu ona oinarri hartuz: integritatea, gardentasuna, kontuen berri ematea eta lankidetzan eraikitzailea.
- Erakundeen arteko inplikazioa jardunbide egokiak sortzeko.

Bere aldetik, Open Eskolaren konpromisorako egindako balioztapenerako eta gaur egungo Open Eskola konpromiso taldearen lehenengo bilerarako, 2018ko urriaren 16an egin zenerako, beharrezkotzat jo da Open Eskola ereduarentzako egokienak diren elementuak zehaztu ahal izateko lehenik eta behin landa azterketa bat egitea, herritarren parte-hartze alorretan OE eredura bideratuta dauden erreferentziazko jarduketak inbentariatzeko hain zuzen ere.

2. Lan hau egin duten taldeak eta pertsonak

- GP – Talde sustatzailea, erakundeetako ordezkari guztiek osatzen dutena.
- GR – Hausnarketa estrategikorako taldea. Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak osatzen dute.
- GC – Konpromiso taldea. Herritarrek, adituek, erakundeetako teknikariek eta politikariek osatzen dute.
- GAM – Talde handia. Herritarrek, hausnarketa estrategikorako taldeak (GR), konpromiso taldeak (GC) eta talde aholkulariak osatzen dute (GA).
- GA – Talde aholkularia. Prozesuan laguntza eskaintzen duten adituak.

4. KONPROMISO TALDEA

Aitzol Batiz	Kultiba koop. elk. txikia
Mariana Alvarez	Herritarra
Elsa Fuente	Unicef Euskadiko Batzordea
Jaio de la Puerta	Globalkultura Elkarte
José María Armentia	c2+i sormena eta berrikuntza
Marta Pastor	EDE fundazioa
Piter Blanco	Solasgune
Miren Gotzone Zaldunbide	Bilboko Udala
Garbiñe Aramendi	Gipuzkoako Foru Aldundia

Gotzon Bernaola

Innobasque

Goizalde Atxutegi

Innobasque

Jon Abril Olaetxea

Elhuyar

Arrate García Campos

Ibatuz

4. KONPROMISOAREN HAUSNARKETARAKO TALDE ESTRATEGIKOA

Isabel Martínez

Gasteizko Udala

José Luis Pérez

Gasteizko Udala

Nekane Zeberio

Arabako Foru Aldundia

César Rodríguez

Arabako Foru Aldundia

4. KONPROMISOAREN TALDE AHOLKULARIA

José Ramón Sobrón

BIKOnsulting - Gadámer.red

Iván del Caz

BIKOnsulting

Javier Goikoetxea

BIKOnsulting

3. Konpromiso taldearen lehenengo bileraren ondorengo bilaketa irizpideak

Konpromiso taldeak onetsitako proposamena

Lehenengo fasearen emaitza, urtarila bukaerara arte gutxi gorabehera, esperientziei buruzko mapaketa bat egitea izango da, eta bakoitzaren analisia jasoko da bertan. Aurretik, abendua bukaeran, analisiaren aurreko mapaketa txostena banatuko da.

Lana eraginkorra izateko, detektatuko esperientziak inbentarioan jaso beharko dira fitxa gisa, eta bertan jasoko dira puntu komunak, konparagarriak egiten ez badituzte ere, gutxienez bateragarriak izan daitezten.

Hauxe bilatzen dugu:

- Gure kalitateari buruzko erreferentziazko esperientziak, gardentasuna oinarri hartuz.
- Herritarren eskoletakoak diren edo mota horretako eskoletakoak ez diren esperientziak eta proiektuak.
- Euskadin oinarrিতa daudenak, OGP kideetan eta munduko beste jarduketetan.

Honakoetan erreferentziazkoak diren esperientziak/proiektuak/ekimenak bilatzen ari gara:

1.- TREBAKUNTZA

- Gizarte trebetasunak
- Trebetasun pertsonalak
- Hausnartzeko eta erabakiak hartzeko eskumenak

- Herritarren eskubideak eta betebeharrak
- Balioak lantzeko lana: Aniztasun mota guztiak errespetatzea
- Porrota kudeatzea
- Gizarteko gaurkotasuna, joerak, eta etorkizuneko egoerak

2.- GIZARTEA ETA KOMUNITATEA SENDOTZEA

- Errespetua sustatzea eta guztiona denaren balioa
- Herritarren ahalduntzea (maila teknikoa, politikoa, herritarra)
- Herri harrotasuna sortzea
- Herritarren eta administrazioaren arteko konfiantza sendotzea
- Komunitateko proiektuak, erakundeek esku hartzen dutenak eta ez dutenak, gatazkak konpondu edo gutxienez kudeatu dituztenak
- Guztiona denari balioa emateko batera sortzeko prozesuak
- Administrazioak herritarrei erronkak (challenge) proposatzeko programak
- Konektoreak/prestatzaileak aktibatuta uzten dituzten proiektuak, era berean gai direnak beste pertsona batzuei prestakuntza eta/edo trebakuntza emateko
- Herri/lurralde proiektuak: Konpromiso politikoa eta gizarte akordioa

3.- UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA

- Administrazio publikoek nola funtzionatzen duten azaltzen duten programak/esperientziak
- Norabide anitzak dituztenak: ez da bakarrik herritarrek erakundea ezagutzea, baita erakundeek herritarrak eta herritarren proiektuak “ezagutzea” ere
- Maila anitzak: Ondarea, espazio naturalak, historia eta ohiturak, artea...
- Hezkuntza arautuan alor horretako sentsibilizazio/hezkuntza programak martxan jartzea
- Lurraldearen ezagutza gaurkotasuneko gaiekin lotzen duten esperientziak

4.- ANTOLAMENDU EGITURA

- Erakundeko atal guztiek parte hartzea eta inplikaturata egotea: Herriko/lurraldeko proiektua da
- Jada badauden bestelako parte-hartze organoekin koordinatuta
- Herritarren parte-hartzea eta zein fasetan: Antolamendua, diseinua, jarraipena eta ebaluazioa

- Argi egotea nork, nola eta noiz hartzen dituen erabakiak
- Maila anitzeko koordinazioa toki eta lurralde erakundeen artean
- Eragile publikoek eta pribatuek parte hartzea eta inplikaturata egotea
- Laborategi logika
- Aurretiaz garbi definitutako eta erabakitako helburuetara bideratzea
- Alderdi bakoitzak baliabideak eta konpromisoak argi eta garbi ezartzea
- Herritarrei bideratutako erakundeen arteko lankidetzaren prozesuak eta/edo proiektuak

5.- PLATAFORMA PARTE-HARTZAILEAK

- Trebakuntza eta/edo erabakiak hartzeko prozesuak sortzen dituztenak
- Lurraldean eragiten dutenak
- Malgutasuna/egokitasuna gaurkotasuneko eta/edo puntualak diren kontuei erantzuna emateko
- Gardentasuna fase guztietan eta jende guztiarekiko komunikazioa ezartzeko egokitzapenak
- Alderdi guztiak ahalduntzea
- Fisikoa eta birtuala uztartzea ahalbidetzen dutenak

6.- Beste batzuk...

Open Eskola ereduaren elementuei eta eragileei dagokienez bereziki trebakuntzari eta antolamendu egiturari buruzko jardunbide onak kontuan hartu behar dira. Elementu horietan dago Open Eskola ereduaren berezitasuna eta bere mugak. Elementu horiei esker ekintzak martxan jartzen dira eta Eskola Irekiaren emaitzak lortzen dira.

Open Eskola ereduaren elementuen eta emaitzen artean honakoak daude:

- Gizartea eta komunitatea sendotzeko alorra. Parte-hartze prozeduren esperimendazioa egitea (komunitateko proiektuen diseinuari, garapenari eta mantentzeari buruzko praktika onei buruzkoa baita). Beraz, gizartea eta komunitatea sendotzeko alorrak herritarren parte hartzeko llab baten irismena konektatzen du eta era berean Open Eskola baten emaitzak azaltzen ditu. Llab bat, hau da, gizartea eta komunitatea alorra sendotzea, premisa bat litzateke, beharrezkoa den elementua edo eragilea parte-hartzean berritzailea den espazio batean (llab) diseinua eta esperimendazioa gauzatu ahal izateko. Open Eskola elementua-emaitza litzateke. Eta garrantzitsua da baita ere esperimendazioa, Open Eskola eta llab lotzen dituen, bakoitzaren mugekin, elkarren osagarri direlarik.
- Open Eskolan ez da “esperimendazioa” jorratzen (komunitateko proiektuak diseinatzea eta martxan jartzea), baina Open Eskola bat martxan jartzearen azken helburua hain

zuzen ere parte-hartzea oinarri hartuz komunitate proiektuak aurrera eramateko baldintzak prestatzea da. Ez bada horretarako, zertarako trebatuko dira eragileak? Open Eskola beraz ezin da ulertu llab batekin osatzen ez baldin bada. Eta lliba ez da Open Eskolaren elementua-emaitza, ezta ere elementu-eragilea. Engranatuta dauden bi eredu dira, erloju baten hagindun piezak bailiran. Open Eskola eta lliba elkarren osagarriak dira, eta dirudienez ezin da eredu bat mantendu bestea ez baldin badago. lliba batean ezin da falta parte-hartzean inplikaturik dauden eragileak trebatzen dituen eredu, eta prestakuntza, bitartekoak eta azpiegiturak ahalbidetzen dituen eragileek proiektuak sortzeko, esperimantazioa planteatzeko. Eta Open Eskolak ez du zentzurik eragileak trebatu ondoren eta azpiegiturak, bitartekoak eta laguntza izanik esperimantatzen ez baldin bada, modu berritzailean diseinatutako proiektuak gauzatzen ez baldin badira herritarren parte-hartzearen bitartez.

- Beraz, gizartea-komunitatea sendotzea une honetan elementu bat da, Open Eskola ereduaren emaitza (Open Eskola baliogarria dela adierazten duen ebidentzia, proiektuak martxan jartzen baitira), baita llibarentzako elementu-eragilea ere, proiektu horiek koordinatzen dituen (lloba sustatzeko arrakastako ezinbesteko faktorea). Laburbilduz, gizartearen eta komunitatearen sendotzea dagoela frogatzea Open Eskola ereduaren emaitzen "froga handienetako" izango litzateke, eta lliba bat arrakastatsua izateko betekizuna edo baldintza.

Taldeak aukeratutako osagai horiek antolatu egingo dira Open Eskola ereduaz aztertzean eta prestatzean. Ereduan honakoak egon daitezke:

Elementu erraztaileak (enablers), konpromiso fitxaren 2. helburuan aipatu zirenak. (Hasieran: Lidergoa, eragile parte-hartzaileak eta laneko organoak, aurrekontua eta erakundearen konpromisoa. Informazioa eta komunikazioa: kudeaketa publikoari eta zerbitzu publikoaren herritarren kudeaketari buruz. Motibazioa eta irakaskuntza-ikaskuntza lankidetzarako trebetasunetan, batera sortzea eta batera kudeatzea balio publikoa sortzean eta emaitzak izango diren gainerako elementuak.

OEren erronka/arazoaren aurrean emaitzei buruzko elementuak.

Ekarpenak, eredu proposamena eta OGP Euskadi 2018-2020 Open Eskola planaren fitxa bateratuz eta gaur egunera arte egindako lanarekin, OEren zirriborro posiblea izango genuke.

Bilaketa irizpide horiek esperientziei buruzko inbentario batean zehazten dira eta fitxetan egituratuta daude, honako itemekin:

1. Fitxaren kodea
2. Izenburua
3. Deskribapena
4. Zergatik den interesgarria esperientzia gisa eta arrakastarako oinarriak
5. Esku hartzen duten eragileak

6. Kategoria
7. Ekarpen berritzaileak
8. Aplikagarritasun maila
9. Oztupoak, kontuan hartu beharreko alderdiak
10. Adierazleak, horrelakorik egonez gero
11. Esteka interesgarriak

OE eredu gisa taula hau aurkezten dizuegu. Hausnarketarako tresna da, konpromiso taldearekin batera egingo da lan hori eta konpromiso fitxarekiko koherentea da:

OPEN ESKOLA EREDUA (4. OGP KONPROMISOA+MAPAKETA)		
	ENABLERS/ OE-REN ELEMENTUAK-ERAGILEAK OE-K ZER BEHARKO DUEN ETA NOLA FUNTZIONATUKO DUEN	EMAITZAK (ZER LORTUKO DU OE-K)
a. Lidergoa, eragile parte-hartzaileak eta laneko organoak, aurrekontua eta erakundearen konpromisoa	ANTOLAMENDU EGITURA	ERANTZUKIDETASUNA ETA KONPROMISOA ELKARBIZITZAN ETA KOMUNITATEKO GAJETAN
b. Informazioa eta komunikazioa: kudeaketa publikoari eta zerbitzu publikoen herritarren kudeaketari buruz	PLATAFORMA PARTE-HARTZAILEAK	GIZARTEA-KOMUNITATEA SENDOTZEA
c. Motibazioa eta ikaskuntza-irakaskuntza lankidetzarako, batera sortzeko eta balioa sortzean batera kudeatzeko trebetasunetan	TREBAKUNTZA	ERAGILEAK ETA PRESTATUTAKO PROZEDURAK GOBERNAMENDU PUBLIKOAN HERRITARREN PARTE- HARTZEA GEHITZEKO
Oharra. Udallerri guztietarako diseinatua; hasiera batean trebakuntza/motibazioa lotzea udal gobernamenturako lehentasunezko alorrekin	UDALERRIA ETA LURRALDEA EZAGUTZEA (NORABIDE BIKOA ETA MAILA ANITZEKOA)	KOLEKTIBOAK, ERAKUNDEAK ETA HERRITARRAK MODU PUBLIKOAN AINTZATESTEA
JORRATZEN DUEN ERRONKA HANDIRAKO: <i>ERAGILE EZBERDINEK KULTURA PARTE-HARTZAILEA SUSTATZEA ETA GARATZEA GOBERNAMENDU PUBLIKOAN</i>		

4. OE ereduari buruzko lehenengo oharra

1. Argi dago aurrekontu konpromisoa eta konpromiso politikoa behar direla programari jarraikortasuna emateko
2. Onena hiri proiektua izatea litzateke, kolektibo zehatzen interes puntualetatik haratago doana
3. Udal arlo guztientzako zeharkakoa den proiektua: parte-hartzea erakunde antolamendu barnetik
4. Balioetan hezte/trebatzea da oinarria
5. Bestelako udal dinamikak barne hartu beharko lituzke (erakundeetakoak edo ez): sareko/sarean lan egiteko pentsamoldea
6. Fase guztietan edo faseetako batean herritarren parte-hartzearen analisia, diseinua, ebaluazioa eta kudeaketa barne hartu behar ditu
7. Kalitatezko esperientziak eskaini behar ditu, horiek baitira herritarrak konprometitzen eta lotzen dituztenak
8. Jende ezberdinari egokitu ahal dena eta horiei guztiei zuzendutakoa izan behar da, jakinaren gainean egonik erronketako bat gazteak gehitzea dela
9. Jarraipen tresnak izan beharko lituzke: talde eragilea, ebaluazioa, datu baseak, eta abar
10. Mailaketa eta aplikazio esparrua lurraldearekin lerrokatuta
11. Herritarrak antena eta sentsore gisa ulertzea (erabakiak hartzera zuzendua)
12. Gaurkotasuneko kontuak, egoerak jorrazteko egokitzapen eta malgutasun gaitasuna
13. Nahikoa argiak diren nortasun ezaugarriekin, eredu gisa atzeman ahal izateko eta aldakorra dena errealitate ezberdinetara egokitze
14. Funtzionamendua sustatzen denarekiko koherentea izatea
15. Administrazioa eta herritarrak batzeko plataforma da (alor politikoa, teknikoa eta herritarra)
16. Ahal den heinean alor publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzat integratu behar ditu
17. OGP Euskadiko beste lau konpromisoekiko lotura garbia du, eta bereziki herritarren parte hartzerako ILabarekin
18. Aurrekoarekin lotuta, OE trebakuntza ematera bideratuta dago, eta Ilab prototipoak egitera: engranaje bateko elementu ezberdinak dira

5. Epe motzean egin beharreko lana

Hito	ACCIONES	QUIEN LO HACE	QUIEN ASISTE	Sep	Oct	Nov	Dic	Ene	Feb
-2	Identificación de las instituciones, entdades o personas a formar parte de este grupo de compromiso y de quienes van a ejercer de líderes (listado de contactos)	Ayuntamiento de Gasteiz y Diputación de Álava							
-1	Propuesta de planificación para la realización del compromiso	Ayuntamiento de Gasteiz y Diputación de Álava (previo contraste con grupo de compromiso)							
0	REUNIÓN CON EL GRUPO DE COMPROMISO. ALCANCE, OBJETIVOS, CRITERIOS Y CONTEXTO DE LA GUÍA OPEN ESKOLA								
	0a - Preparación dinámica	GA							
	0b - Dinámica con el Grupo de compromiso		GR - GC - GA				13		
	0c - Elaboración del Borrador	GA							
1	MAPEO DE PRÁCTICAS INNOVADORAS DE ESCUELAS ABIERTAS PARA LA CIUDADANÍA DE EUSKADI Y OTRAS, DETENIÉNDONOS DE MANERA ESPECIAL EN LA ESCUELA ABIERTA DE LA CIUDADANÍA DE VITORIA-GASTEIZ.	GA							
2	ANÁLISIS DEL MAPEO Y ELABORACIÓN DE DOCUMENTO PARA EL GRUPO DE COMPROMISO	GA							
3	ELABORACIÓN DE BORRADOR DE OBJETIVOS EN BASE AL MAPEO								
	3a Preparación dinámica	GA							
	3b Dinámica con el Grupo de compromiso	GA	GR - GC - GA						
	3c Elaboración del Borrador	GA							

6. Fitxak/esperientziak

Gaurko ezarritako helburuarekin bat eginez, fitxen eta esperientzien lehenengo multzoa eman da. Horiek guztiak inspiratzaileak dira Open Eskola eredu sortzeko. Hala, horietariko bakoitza beharrezkoa da, baina ez da nahikoa.

Esperientzien inbentario hau ikuspuntu kualitatibotik kontuan hartu behar da eta ez kuantitatibotik. Aurkeztutako fitxa bakoitza eredu gisa erabili daiteke arrazoi zehatz baterako, eta gure helburua esperientzia bakoitzaren ontasun eta onurak batzen dituen eredu sortzea da. Fitxa guztiek pistak ematen dizkigute, osagaiak dira. Baina tresnak dira, lanerako agiriak, OGP Euskadi 4. konpromisoan zehaztutako helburua lortzeko bitartekoak.

Lana baterako sorkuntzan oinarrituz gauzatu da, eta alderdi eta pertsona guztiek ezagutzak, ikuspuntuak, interesak eta esperientziak eskaini dituzte. Konpromiso taldeak emandako esperientzia guztiak berrikusi egin dira eta azken dokumentuan jasoko dira, batzuk fitxa zehatz gisa eta beste batzuk ez.

ESPERIENTZIEN AURKIBIDEA:

ESTEKA:

https://drive.google.com/drive/folders/1RQpmjCzsfYUI3DV9pFzTDgTKyBhDpM_C?ogsrc=32

TREBAKUNTZA

- CA01 (EMEP) Iruña. Liburutegia eta dokumentazio zentro fisikoak
- CA02 (EMEP) Iruña. DANZAR-ME
- CA03 (EMEP) Iruña. Erabaki – Herritarren parte-hartze araubidea
- CA04 Osasun Eskola, paziente aktiboa
- CA05 Aragoik parte hartzen du – Ikastaroak eta jardunaldiak
- CA06 Gida didaktikoa. Gobernu irekia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- CA07 Ziberboluntarioak
- CA08 Porroten curriculuma
- CA09 Herritar kritikoen eskola (Alboan eta Deustu)
- CA10 Estonia, nazio digitala – Parte-hartzerako hezkuntza
- CA11 Neuronilla fundazioa
- CA12 Batxilergoko gobernu irekiko gida didaktikoa
- CA13 Lehen Hezkuntzako gobernu irekiko gida didaktikoa

UDALERRIA-LURRALDEA EZAGUTZEA

- CT01 Herritarren ekimenen haztegia
- CT02 Mein Berlin
- CT03 Impacta proiektua
- CT04 Irlanda herritarren asanblada

ANTOLAMENDU EGITURA

- EO01 (EMEP) Iruña. Zentro
- EO02 Umeen Agora
- EO03 DIEM 25
- EO04 (EMEP) Iruña. Diru-laguntzak lehia araubidean
- EO05 Bolonia araubidea
- EO06 Antolamendu osasuna

GIZARTEA-KOMUNITATEA SENDOTZEA

FS01 (EMEP) Iruña. Lege aholkularitza

FS02 Radarrak

FS03 (EMEP) Iruña. Erabaki – Baterako laborategiak

FS04 (EMEP) Iruña. Erabaki – parte-hartze ataria- ikastaroak

FS05 Barakaldoko herritarren parte-hartze eskola – auzoak eta institutuak

FS06 Ginebra agenda ekimena

PLATAFORMA PARTE-HARTZAILEAK

PL01 Milton Keynes webgunea (Ingalaterra)

PL02 (EMEP) Iruña. Erabaki – atari asoziatiboa

PL03 Team London

PL04 Herritarren parte-hartze ataria Portugaleten

PL05 (EMEP) Iruña. Erabaki – parte-hartze ataria

PL06 Herritarren parte-hartzerako gida Europako hirientzako tokiko kultura politikak garatzeko

PL07 Estonia, nazio digitala

PL08 Estonia, nazio digitala. IKTak, 3. neurria

PL09 Estonia, nazio digitala. IKTak, 2. neurria

PL10 Estonia, nazio digitala. IKTak, 1. neurria

PL11 E-voting (Demotek)

PL12 Eskatzeko eskubidea